

Karkara

karkara.com

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016ko urriaren 28a · 377 zenbakia, 26. urtea



Etxean bezala inon ez?

Bidaiatzea du bizimolde Ione Lertxundik. Hiru kontinentetako biztanle izan da eta azken bi urte eta erdia Seulen pasa du.

8

Mahaiaren bueltan
Atal berria

11

Benito forever
Jon Alonso

25

Erreportajea
Merkatariak

30

Kritika
Jendartean bidaide



URRIAK 24 - AZAROAK 8
Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Saskiak eskatzeko:
 karkara@karkara.com
 943 83 15 27

HARTU SASKI BELTZA ALA ZURIA (EDO BIAK) ETA EMAN NAFARROA HEGOALDEKO EUSKALGINTZARI %25

Noaua!ren KULTURALDIA 2016
 Azaroaren 4tik 13ra

azaroak 4, OSTIRALA DANTZA
 Orbeldi dantzan

azaroak 5, LARUNBATA MUSIKA EMANALDIA
 Komposabak: Bidala Intimo bak emanumeen istorietan zehar

azaroak 10, OSTEGUNA HETZALDI SOLASALDIA
 Xabi Solanorekin

azaroak 11, OSTIRALA KANTU-BERTSO-AFARIA
 Kantu-jira eta kantu-bertsu-afaria Bertsoariak: Ouzo Albeidi eta Joux Mari Inzu

azaroaren 4tik 13ra ERAKUSKETA
 Noaua! K.E.-k 20 urte! Bideo emanaldia, panelak...

azaroak 12, LARUNBATA ANTZEZLANA
 Non gaude?

azaroak 13, IGANDEA KONTZERTUA
 Ruper Ordorika

USURBILEN

noaua **ORBELDI DANTZA TALDEA** **Usurbilgo Kanta Taldea**

377

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orío
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
 kultur elkartea

Erredaktore burua
 Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
 Onintza Aiestaran
 Olatz Artola
 Iñigo Exposito
 Jon Garate
 Elizabete Manterola
 Intza Unanue
 Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Jon Alonso
 Xabier Etxeberria
 Iñaki Iturain
 Haritz Hernandez,
 Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Ibon Berasaluze (Orió)
 Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
 Lege gordailua SS-346/90
 ISSN 1132-1105
 Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

PUNTUA JARRITA**HARITZ HERNANDEZ "LARRUME"** (DOINUA: BIZKAIKO ABERATSAK)**Aizperro joan da ta berria ekarri**

Joxanen lanek dute urte hau mugarri. Nahiz eta bere lanak egin zoragarri, herria jarria da estu eta larri: aldaketa bat ona izaten da sarri.

Salsamendi dijoa postua hartzera gogotsu omen dator mutila antzera. Ateratzeko asmoz Oriyo aurrera, nolabait borrokatuz Kontxako bandera: ea nola juten dan Orion aukera.



Hurrengoari puntua: ontziek bota dute portuan txikota

Publizitatea kontratatzeko:
Karkara
688 859 682 (Sonia)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK**

Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

eduzitegia
ANTILLA
juleta

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**ZAUDEN
 LEKUAN
 ZAUDELA**



karkara.eus



PACHON 218

Ileapaindegia Bizartegia

Gizonezko eta haurrentzat

- Jubilatua 8 €
- Mozketak 10 €
- Bizarra kentzea 10 €
- Mortea + bizarra kentzea 15 €
- Bekainak 3 €
- Markatzea 5 €

Berria Oriain!

Artelatorreth arteleak
 18:00 - 18:00
 Lanortetako
 10:00 - 18:00

Aita Lortzarik, 27 Zubia - 20810 ORIO
 Tel. 943 807 896



GARMENDIA

INDIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
 Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
 informacion@garmendiagestion.com

KOLON TXIKI
*señalariak
 juleta*



Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44



**EKILORE
 GARBIKETAK**

626417841
 ekilore@outlook.es

**MENDIZABAL
 AROZTEGIA**
*Naurriko arnairak
 eta eperlarak*

943 831 175 Altzari bidea
 645 708 491 Beto-Aloi etxea
 mendizabalgari.net 20810 Aia-Orio



INDO

**Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA**

Ubegun industriagunea, 4
 Tel. 943 894 024
 Fax. 943 130 144
 20809 AIA - ORIO




**gizarte
 kutxa**

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-

fotorosanaarruti@gmail.com
 telf: 943 83 58 45



HAIZE BERRI
fabrika-juleta-kafetegia

Plater konbinatuak,
 bokatak,
 hanburgesak,
 nasiak,
 eguneko menua...

**eta etxera eramateko
 zerbitzua!**

943 831 623

Orioko kiroldegian, Erribera 1




ELEKTRIZITATEA
Andex Experto

943 831 774
 600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

Kaka egin duenari

Udaz geroztik, Abaromendi auzoan, 25, 26 eta 27 portaletako sarreran dauden eskaileretan kaka egin du pertsonaren batek lau bat alditan. Ulertzen dugu estuasun batean egotean egin beharrak egitea, baina egindakoa jasotzea eta garbitzea eskertuko genuke. Eta, kasu honetan, guk geuk bildu izan dugu lagun honek egindako gorotza. Beraz, kaka egin duen horri hurrengoan ahal badu komunean egiteko eskatzen diogu, eta, estuasun batek harrapatuz gero, jasotzea. ■ **Bizilagun bat**

Unblenble!

Iritsi dira herriko jai bezperak, eta urtero bezala gogotsu hartuko ditugu guztiok. Lehengo urteetan jai ereduaren inguruko kezkez hausnartzen jardun ginen herritar talde bat. Besteak beste, festa herrikoi, parte-hartzaile, parekide, euskaldun eta sortzailean si-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalerara eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

nesten dugu. Horregatik antolatu izan ditugu babarrun jan goxo, epel, euskaldun eta parte-hartzaileak beste ekin-tzen artean.

Aurten babarrun jana abenduaren 6an izango da; San Nikolas egunean,

14:00etan Kiroldegian. Hainbeste jende bilduko duen bazkari batek lana eskatzen du, ondo ez bada banatzen, karga bihurtzen den lana, alegia. Horregatik, aurten ere laguntza eske gatoz, herri bazkariak gozatzen dugun guztion artean banatzen badugu lan hori, askoz ere gusturago egongo baikara guztiok. Lan taldeak horrela banatu ditugu:

- 1.- Erosketa-ordainketa
- 2.- Bazkari prestaketa
- 3.- Muntaketa
- 4.- Bazkaria ematea
- 5.- Jaso eta garbitzea

Bakoitzak bere alea jar dezan, bilera egun bat jarri dugu, animatzen zareten kuadrilak ongi antolatzeko. Bilera eguna azaroak 14, asteartea, 19 tan kultur etxean. Zalantzarik baduzue deitu zenbaki honetara, 688631740.

Jaiak herritik herriarentzat! Ongi segi ta altxa kopa hori, Ieup!

■ **Babarrun jana**

■ ZORIONAK!

Guraso euskaldun zaharrei eta berriei

Aurkeztu berri da jendaurrean euskararen VI. Inkesta Sozio-linguistikoa, bost urtean behin egiten dena. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak aurkeztu zituzten EA Eri dagozkion emaitzak. Hilabete gutxi barru aurkeztuko dira Nafarroari eta Iparraldeari dagozkien datuak.

Guraso euskaldun berriek egiten duten euskararen transmisioari dago-kiona da inkesta honen berrikuntza garrantzitsuenetakoa. Ikusi da, guraso euskaldun zaharrek ez ezik –%100ean– guraso euskaldun berriek ere proportzio altuan transmititzen dutela euskara etxean. Poztekoa albiste, dudarik gabe, eta bihoakie gure herrietako guraso euskaldun berri horiei gure zorionik beroena.

Zein da ordea emaitza horien ifrentzua? Aia eta Orio bezalako guneetan, arnaguneetan, behera egin du euskararen erabilerak azken urteetan. Oso kontuan hartzekoa hori ere.

■ JAIOTAKOAK

- Karla Elola Calderon, Orion, urriaren 11n.
- Iker eta Unax Solaberrieta Arruabarrena, Orion, urriaren 9an.

■ EZKONDUTAKOAK

- Joseba Oriden Lizarralde eta Nerea Oteiza Arzuaga, Orion, urriaren 8an.
- Olatz Elizondo Salegi eta Agustin Leon Arrizabalaga, Orion, irailaren 24an.
- Beñat Iturbe Guelbenzu eta Itxaso Gonzalez Zubeldia, Orion, irailaren 3an.

■ HILDAKOAK

- Ignazio Genova Uzkudun, Orion, urriaren 20an. 87 urte.
- Francisca Arruti Gonzalez Etxabarri, Aian, urriaren 19an. 82 urte.
- Maria Sebastiana Roteta Larrañaga, Orion, urriaren 12an. 86 urte.
- Maria Felisa Urkizu Arrizabalaga, Orion, urriaren 1ean. 87 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoan-garria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Hamar urte bete ditu Mandalarak. Lan taldearen argazkia.



Orioko kanpinaren argazkia.



Mola-Molako kontzertu eta jaietan ere jende ugari ibili da.

Gatz- gabea zirur- dien

“Ekainetik irailera 8.590 lagun pasa dira turismo bulegotik. Horietako 950 oriotarrak eta 1.063 EAEkoak”

urriak...

Etxera itzultzeko hila da iraila. Bukatu da udara. Baita balantze garaia ere, turismo datuak baloratzeko unea. Udak utzi diguna zenbaki hutsetatik harago aztertzea komeni da.

Ekainetik irailera 8.590 lagun pasa dira turismo bulegotik. Bertakoak izan dira horietako batzuk, oriotarrak; 950, hain zuzen. EAetik lagun asko etorri dira, 1063. Horietatik gehienak gipuzkoarrak izan dira. Baina Euskal Herriko mugetatik kanpo ere etorri dira turistak Oriora. Espainiar estatutik 2.819 bisitari etorri dira, horien artean 858 Kataluniatik eta 829 Madrildik. Estatutik kanpoko turistak ere etorri dira: 924 frantziar, 357 alemaniar, 240 erresuma batuar, Herbehe- retako lagun ugari etorri dira eta ia guztiek kanpinean hartu dute ostatu.

Kanpinak tokirik ez zuela iragartzen zuen kartela jarrita izan du hainbatetan udaran. Ekaineko lehen hamabostaldian %70,65a beteta egon da. Bigarrenengan %64,03a. Uztaileko lehen hamabostaldia %94,05a bete da. Bigarren hamabostaldian eta uztaileko lehenengoan beteta egon da kanpina. Uztaileko bigarren hamabostaldian %95,14a bete da.

Udaran oporretara etortzen dira kanpotarrak eta hemengo arrantzaleak kanpora joaten dira, hegaluzea harrapatzea. Aurten Gipuzkoan bost mila tona jaso dira.

Zenbakien joan etorrian udarari begira jarri garen arren,

Zer iruditzen zaizu gaztetxea azkenaldian hartzen ari den martxa?



“Lanean aritu garenontzat oso pozgarria da”

Orioko Etxeluze gaztetxea indarra hartzen ari da herrian antolatzen diren ekintza kulturalen artean.

Gero eta ekitaldi gehiago eta anitza- goak egiten dira gaztetxean. Hasiera batean, ekitaldiak, gaztetxeko asteaz- keneroko bileretatik sortzen baziren ere, gero eta proposamen gehiago jaso- tzen ditu Etxeluzek herriko hainbat el- karteetatik, eta hori guztiz aberasga- rria da.

Gaztetxea herriarena eta herriaren- tzat da eta edozein sustapen kultural ongi etorria da. Horrela, azaroko agen- da itxura polita hartzen ari da eta gaz- tetxea berpizteko lanean aritu gare- nontzat oso pozgarria da.

Nadeth Arruti Roteta



“Une gozoak dira gaur egun Etxeluzen”

Barrutik gabiltzanean askotan kostea egiten zaigu egiten diren gauza onen kontzientzia har- tzea. Gaizki egindakoak berriz, gehie- gitan izaten ditugu buruan. Horregatik ona izaten da kanpokoen iritziak en- tzutea. Etxeluze gaztetxeak 6 urteko ibilbide honetan denetik izan du, ha- sierako kaos jendetsu euforiko haiek jakin zuten egonkortasuna ekartzen. Orditik hala ere, euforia hori pixkana- ka jaitsi eta une zailak ere pasa behar izan dituzte Etxeluzetarrek. Une gozo- ak gaur egun Etxeluzen, oztopoei ilu- sioz erantzuten jakin izan dute eta orain kanpotik begiratzen dugunoi eskerrak eta zorionak ematea geratzen zaigu. Animo eta gora Etxeluze!

Asier Sarasola Uranga



“Orioko gaztetxean xaltxa badela esan dezakegu”

Herri lanak xarma berezia du, gauzak zuk zeuk egiten ditu- zunean balio gehigarria bai- tute.

Gazte festetan adin askotako jendea ikusi nuen lanerako gogoz eta hori oso aberasgarria iruditu zitzaidan. Baina honi jarraipen bat ematea beharrezkoa da, jendearen gogoia ez itzaltzeko. Hel- buru horrekin, hainbat kontzertu an- tolatu dira gaztetxean, eta oso biziga- rria da hori. Gazte jendea aktibo ikus- teak, herria bizirik dagoela islatzen du. Gaztetxeari eta herriari indar eta izaer- a ematen hari gara. Orioko gaztetxean *xaltxa badela* esan dezakegu, beraz; eta jarrai dezala horrela, bide onean goaz eta!

Enara Beloki Irastorza



Hilarriak eta marmolak

Azpiroz S.L.

San Esteban auzoa, 15 (Gileagasti baserria) Ueurbil

Orioko eta Aiako hilerrietarako zerbitzua

- Hilarriak eta panteroiak
- Harnan inskripzioak
- Panteroietan marritzen eta garbiketa lanak
- Argazki zeramikoa

627467216

marmolesazpiroz@hotmail.com
<http://marmolesazpiroz.wordpress.com>

Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratzak, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

“Ez erosi zintzarria behiaren aurretik”

Pilar Etxezarreta Iribar Bakailaoa pil-pilean



JON AGIRRESAROBÉ

Osagaiak

Oliba olioak, gradu bakarrekoa. Baratzuria, atzaparkada bat. Bakailao gezatua, trontzotan. Pipermina, aukeran. Perrexila.

Gomendatutako edaria

Katxiña Txakolina.

Nola egin?

Olioak sutan jarri eta baratzuria bota. Doratzen hasi baino lehen erretiratu, doratzen bada saltsa zuria aterako baita. Olio hori prest dago nahi duzunean erabiltzeko.

Kazuelan bakailaoa azalez gorajarrir beti. Sutan eragin saltsa loditu arte. Saltsa azal parera iristean prest dago platera. Askok pipermina botatzen diote. Amaitzean perrexila geihitu.

Argazkian bi senar-emate gazte lanerako prest ageri dira: Pilar eta Joxe Etxezarreta Agerre baserriko anai-arrebak, Jose Migel Zendoia Mutrikuarrarekin eta Mari Karmen Atxega aginarrarekin. Argazkiaren atzealdean idatzita dago eguna: 1979. urteko ekainaren 24ean zabaldu zuten Katxiña.

Orditik gutxi atera da Pilar jatetxeko sukaldetik. Ostegunarekin hartu gaitu. Itxita dago jatetxea, baina gurekin pasatu goiza berriketan. Langilea da Pilar, langilea eta hizketan grazia handikoa. Bi bertute dira horiek.

25 urte zenituela zabaldu zenuten Katxiña. Bakailaoa eskaintzen hasi zineten.

Juan Antonio Ercillak eman zigun ideia: *hemen inguruan ez dago jatetxerik bakailaoa pil-pilean eskaintzen duenik. Arrakasta izango duzue*. Bilboko Casa Guriara joan ginen probatzera, izugarria zegoen. Orduan, anaia Joxek esan zidan elkarrekin jatetxea ireki behar genuela. Laster esan nien, nik ez dut hain ona egiten. Laurok aztertu eta berotu egin ginen: miloi bat pezeta eskatu genion bankuari, %16ko interesekin atera genuen kreditua. Joxek eta Joxe Migelek kanpoan ere lan egiten zuten. Urteen poderioz bakailaoak zabaldu zuen Katxiñaren ospea, baina hasieratik bisigua eta kokotea parri-lan ere eskaintzen genituen.

Nahastuta nabili. Baserria Agerre da, eta jatetxea Katxiña.

Laurogei urteko aitona San Martinen meza entzun ostean eztabaida bizian entzun izan ditugu etxe atarian, batak beste-

ari *ikusten al duk, baserrian Agerre jartzen dik* esanez. Historia ederra da: Jose Mari Katxiña Lizartzako artzaia zen, Agerre baserriko alabarekin ezkondu zena. Honen anai Joxe Domingo zen maiorazkoa Agerren, eta Orexako Joxeparekin ezkondu zen gurasoek ferian tratua eginda. Gauzak horrela, Lizartzako artzaia eta Agerreko alaba Itsaspe baserrira joan ziren bizitzera. Bitxia da gero: Katxiña artzaina deitzen zioten eta Itsaspen bizi zen, jaiotzez Lizartzakoa izanda. Artzaina da bere semea ere, Lazkaon bizi da eta Katxiña izeneko gaztak egiten ditu.

Bizi osoan etxean egin duzu lan.

10 urterekin antxoei burua kentzera joaten ginen. Rekondo familiaren txaletera ere bai sukaldeak jaso eta etxea garbitzera. Arropa zabaltzeko sokan jarritako trapua zen agindu, kolorearen araberakoa: trapu berdea esnea eramateko, trapu gorria sukalde garbitzera joateko... Moulinex enpresa zabaldu zenean nire adineko neska pila sartu ziren lanera. Baina etxean emakumea behar zen. Pena hartu nuen, etxera jor-nala ez ekartzearen pena.

Pilar zukan nabarmena da arbasoen arrastoa..

Eredu izan dira. Gurasoak seme-alaben aurrean ez ziren inoiz haserretu. Gu, berriz, mahaian jarri eta entzuten egoten ginen, egi bihurtzen ziren haiek esandako asko. Esaterako, gure amonari entzuna da: *ni berehalaxe hilko naun, baino aurki kale denak taberna izango ditun, mendi denak kamio,*



Goian Pilar Katxiñako jangelan. Behean, familia argazkia: Aita Inazio, ama Antxoni, amona Joxepa, Pilar bera eta anaia Jose Inazio.

“San Pedro batzutan saiatu nintzen kroketak egiten, lehen haiek pilotan jokatzeko modukoak irten zitzaizkidan, gogor-gogorak”

“Anaia Joxek esan zidan elkarrekin jatetxea ireki behar genuela”

eta gizonezkoa emakumezkoarengandik ihesi arbola gainera igoko den. Ez zebilen urruti gure amona, asko aldatu da gizar-tea. Esaterako, haurdun dauden bikote gazteek ere izena pentsatuta izaten dute oso goiz. Grazia egiten dit, gure amonak esanak gogoan: *behia baino lehen zintzarririk ez erosi*. Joxe Migel eta biok haurra jaio arte ez genuen sehaska dendatik ekarri. Orain berriz, seme-alabei zerbait esaten hasi eta segituan erantzuten hasten zaizkizu, ez dute entzuten.

Zuri entzunda erreza ematen du sukaldeko ofizioak.

Ez da erraza izan. Joxe Migel eta biok Altxerrin aritu ginen ikasten, bera parrilan eta ni sukaldean begira, ezer egin gabe. Mari Karmen koinata eta Joxe anaia Aieten aritu ziren. Bizitzan bi momentu izan ditut txarrak: amaren heriotza eta Katxiña martxan jarri genueneko. Ardura handia zen, gauero ametsetan, hezur eta azal gelditu nintzen.

Bakailaoa hautatu duzu errezeta eskatuta. Baina Argiñanok esana da kroketa onenak Katxiñakoak direla.

Gure amak harrigarriak egiten zituen, haragi egosiarekin. Salsamendinean egoten zen, inoiz taberna irekitzeko asmoz entzun izan nituen hizketan aita eta biak. Baina gure ama isila zen. Nik hamairu urte nituenean hil zen ama. Orduan heltzea prestatuko nuen baina asko gehiago ez. San Pedro batzutan saiatu nintzen kroketak egiten, lehenbiziko haiek pilotan jokatzeko modukoak irten zitzaizkidan, gogor-gogorak. Baina esne partitzen ibiltzen nintzen eta etxeko andreei galdetuz lortu nuen gustuko errezeta. Jatetxea irekita Armendariz eta Cebanc eskoletan izan naiz ikasten. Baina ez naiz proba asko egin zalea, hori bai, nahi izaten dut ateratzen duguna goxo prestatzea.

Katxiñari parrilak eman dio ospea eta izaera. Bakailaoaren arrakasta ihesi joan zen, agidanez.

Bezeroa aldatzen hasi zen, arrain aukera gehiago eskatzen. Geroztik, kanpoko jendeak bisigua nahi du eta asko ateratzen dira erreboiloa eta linguadoa edo mihi-arraina. Gaur egun bakailaoa jaten da, beste modu batzuetara ordea: tortilan, frijitua, tomatearekin... pil-pilean lehen bezala ez. Inork eskatzen badu adineko pertsona izango da. Gazteak ez du ohiturik. Etxean ez dutelako ikusi, oraingo bitrozeramikan ez baitago kazuela hara eta hona ibiltzerik. Ez da galdu den errezeta bakarra: sagarrak ardotan egiten ikasi nion izeba mojarri, oso ona, baina edadekoak bakarrik eskatzen zuten eta egiteari utzi genion.

63 urte dituzu. Zerk eman dizu lanean jarraitzeko indarra?

Txikitatik izan dugu bizimodu gogorra, baina zoriontsu ginen. Semeakesan izan dit, ama noiz deskantsatu behar duzu? Familian egiten dugu lana eta bizi egiten dut. Orain bodegan ere ari gara. Gogorra da atea ireki eta zein etorriko zain egotea. Baina satisfazio handikoa da, eskertua, bezeroek errepikatu egiten dutela ikustean duzunean.

LEUNDA OKINDEGIA

ORDUTEGI ALDAKETA **943 89 00 67**

astolohenetik-larunbatera igande eta jaial-egunetan
7.00-13.30 / 17.00-20.30 7.00-13.30

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX: 943 571 190
l.aseño@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI. 1
20810 ORIO

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA

LEIHO ISOLATZAILEAK
PVC - ALUMINIOA

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com
www.carpinteriamaiza.com
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

ORIA
hartz klinika

Orio Hartz Klinikak **ORTODONZIA** zerbitzu berria joni du martian.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erorkuntzean sor daitezkeen arazoak.

Arrantzale kalea, 63 beheak
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Garbine Arregi

Moda eta osagarriak

Herrala plaza, 5
635 706 265

pausgarritan goizez zabalik!

Azkue

Tf: 943 130 438

Azkue

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

kutixi
kafetegia
GOSARI GORDIAK

Artzaga 8, 20810 Orio
Tf: 943 13 15 17

AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak

Manejo terapéutico, benzona, akupuntura, eskuzko terapia, osteopatia

943 13 35 37

Artzaga kalea, 11 beheak

ITZALA


kartela jakatzeko arropak

tel. 943 83 12 59

KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Itsasotik, itsasoari begira

Itsasoa sentitzeko hamaika modu daude. Guk lau ekarri ditugu lerrootara. Andoni Fernandez olatu handitan aritzen da surfean, Unai Zubizarreta bodyboard taularekin, Itziar Olasagasti traineruan eta Irene Ansorregi igerian.

TESTUA: OLATZARTOLA

ARGAZKIAK: R. G. RIANCHO, KLAUSSER, B. MUTIOZABAL

Itsasoa: Ozeanoa, Lurraren azaleraren zatirik handiena estaltzen duen ur gaziko eremua. Itsasoan olatu gainean, arraunean, ur azpian edo igerian. Itsasoa bizitoki ez, baina bizimolde dute oriotar askok. Itsasoa bizitzeko hamaika modu daude, eta bost bizimolde ekarri nahi izan ditugu hona.

Olatu handiak harrapatzen aritzen da Andoni Fernandez. Itsasoa beretzat pasioa eta kirola da. Unai Zubizarretarentzat, ordea, uretan ibiltzea hobby-a da. *Gauza guztiez ahazteko momentua da. Berezia da. Itsasoarekin bat egiten duzu eta erlaxatu egiten zara.* Itziar Olasagastik ere hori nabarmentzen du: erlaxazioa. *Ez gara joaten paisaiari begira, baina*

eragina dauka. Atsedean hartzean ingurura begiratu eta para-je horietan kirola egiten zabiltzala ikustea ederra da.

Arraunari tira eta tira aritzen da Olasagasti, sarritan olatuen kontra tira egin behar izaten du; baina, bestetan, olatua hartu eta lehertu bitartean olatu gainean joaten da. *Oso polita da hori, aitortzen du.*

Irene Ansorregirentzat, itsasoak badu zerbait igerilekuak ez duena, hain zuzen Olasagastik azpimarratutako gauza berbera: olatuak hartzearen esentzia. *Bukatzeaz zaudenean, azken metroak egiten ari zarenean, olatua hartu eta ia itsasertzera eramaten zaituenean sentitzen duzuna oso polita da. Asko gustatzen zait sentsazio hori, dio igerilariak.*

Uretan zergatik?

Surf txikia egiten zuen aurretik, baina beretzat ez zen pasioa. Fernandezi sentsazio fuerteak ematen dituzten kirolak gus-



tatzen zaizkio: eskia, snowa, motocrossa... eta, nola ez, olatu handiak hartzea. *Futbola eta antzerakoak ez zaizkit sekula gustatu. Batetik, txarra nintzelako; eta, bestetik, lehiakortasun hori ez zaidalako gustatzen.* Bata bestearen aurka aritze hori ez du gustuko. Olatu handien ehizan elkarrekin aritzen dira, ordea. Eta, elkarrekin aritze hori ere azpimarratu du Zubizarretak: *Lagunekin zaude, giro onean; kirola egiten dugu; eta, gainera, deskonektatu egiten duzu.* Olasagastik ere taldean egiten du arraun. Eta, denboraren poderioz, tostaki-deak lagun ere bilakatu zaizkio.

Igerian bi hilabeterekin hasi zen Ansorregi. Urarekin harremana ia jaiotzetik izan du, beraz. *Aitak eramaten ninduen uretara oso txikia nintzela.* Ordutik estutu besterik ez da egin Ansorregiren eta uraren arteko harremana. Geroago, igeriketako eskolak jasotzen hasi zen. Itsasoan igeri egin beharrean, igerilekuan egiten zuen. Oriotik Zarautzera joan zen, hango igeriketa klubera. Baina 12 bat urte zituenean, igerilekuan ez ezik, itsasoan ere hasi zen igeri egiten. *Orduan hasi ginen lehen zeharkaldiak egiten, azaldu du.*

Itsasoa, bidaiatzeko aitzakia

Euskal Herriak Kantauri itsasoko zati handi bat hartzen du. Hondartza asko daude, uretako kirolak praktikatzeko gune ugari; baina, hala ere, Euskal Herriak ere baditu mugak. *Kirol honekiko –olatu handien surfa– geroz eta lotura handiagoa duzunean, gehiagotan praktikatu nahi duzu, baina hemen egunak mugatuak dira.* Hortaz, *kanpora joaten naiz olatu handien bila.* Perun, Mexikon eta Indonesian izan da Ostolaza, besteak beste. Azkenekoz Perun izan zen. *Peru surfaren habia bilakatu zen. Olatu handien kultura oso zabaldua dago*

han. Pico Alto ezaguna da, nik aspalditik nuen begiz jota. Ez da Hollywood. Ez dago masifikaziorik. Eta hain justu hori da Ostolazak surfagatik bidaiatzen duenen bilatzen duen gauzeta-kobato, masifikazioak saihestea. *Toki asko Everest bezala dira, eta, horregatik, jende asko ibiltzen da. Baina jendetzarik nahi ez baduzu, bestelako zortzimilakoak aurkitu behar dituzu.* Eta hori egin du Ostolazak Peruko Pico Alton. *Estalgabetu zutenean, famatua egin zen, baina orain aparra jaitsi zaio. Askok gustatu zitzaidan.*

Gainontzekoak sekula ez dira horren urrun joan pasioz bizi duten kirol hori praktikatzera. Salbuespenak salbuespen, ia beti Kantauri itsasoko uretan ibili izan dira.

Iaztik zeharkaldiak aitzakia ere badira Ansorregirentzat erbestera ez, baina bai Euskal Herriko kostaldeko herriak bisitatzeko. *Liga bat dago. Donostian hiru zeharkaldi daude, Deban bat, Zumaian beste bat... zeharkaldi dezente daude. Nik ez ditut guztiak egiten, oporretara joaten bainaiz eta orduan bateren bat galtzen baitut.* Baina, gainontzean, hara eta hona joaten da udan Ansorregi, zeharkaldiz zeharkaldi.

Etxetik kanpora, itsasoa faltan

Oriotik kanpora bidaiatzera joateaz gain, ikasketengatik ere joatea egokitu zitzaion Itziar Olasagastiri. Iruñeara joan zen. Hemen bizi garenean ez gara ohartzen itsasoa hor daukagula. *Iruñean sei urte pasa nituen eta faltan sumatzen nuen. Lasaitasun handia ematen dit itsasoak eta horren falta nabaritzen nuen. Iruñean ibaia zegoen, baina ez da berdina.*

Lehorrean bizi direnek ez dute hondartza beren egunero-kotasunean; baina, kostaldean bizi direnek, bai. Beren eguneroko bizian presentzia du itsasoak eta hori nabarmen



“Mareak gure eguneroko bizitzan dakartza aldaketak, eta aldaketa horiek eragina duten gudan”

ITZIAR OLASAGASTI

“Itsasoa ondo ezagutu behar da”

ANDONI FERNANDEZ

“Gauza guztiez ahazteko momentua da. Berezia da. Itsasoarekin bat egiten duzu eta erlaxatu egiten zara”

UNAI ZUBIZARRETA

“Aitak eramaten ninduen uretara oso txikia nintzela”

IRENE ANSORREGI

sentitu zuen Olasagastik Iruñean bizi zenean. *Mareak berak gure eguneroko bizitzan dakartzan aldaketak dakartza, eta, aldaketa horiek, eragina dute gudan.*

Izan kirolari edo ez, itsasoarekin lotua estua dute kostaldeko herritarrek.

Negua ere itsasoan

Hondartza udan betetzen da jendez. Eguzkizalez. Uretan freskatzea gogoko dutenez. Buelta eta buelta emanda beltz jarri nahi dutenez. Baina, neguan ere hondartzara lagun asko joaten dira, bereziki uretako kirola egiten dutenak.

Traineru liga udan izan arren, neguan hasten dira udan punta-puntan egoteko prestatzen. Euskal Herriko Bodyboard zirkuitua bukatu berri den arren, Zubizarretaren uste-tan negua garai hobea da olatu artean jolasean aritzeko. Fernandezek ere hori berresten du. Udan olatu txikiak izaten direla azaldu du, beraz, urte sasoi horretan beste kirol modalitate batzuk praktikatzan ditu.

Ansorregik, ordea, ez du neguan hondartzarik zapaltzen. *Udaran bakarrik joaten naiz. Zeharkaldiak ere udan izaten dira soilik. Neguan ez dira egiten.*

Itsasoaren alde iluna, arriskua

Adrenalina dantza bizi daiteke olatuen dantzan, baina beti hankak lurrean eta burua hotz eduki behar dira, arriskua ahalik eta gehien ekiditeko. *Itsasoa ondo ezagutu behar da*, dio Fernandezek. Itsasoa zenbat eta gehiago ezagutu, itsasoan gero eta gehiago goza daiteke. Baina uretan ibiltzea ez da itsasoaz gozatzeko modu bakarra. Laukote honek itsasoari begira ere gozaten du.

LUXARBE

Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak. Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80 - Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

ur bide

iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bekala Kalea, 4
20800 Zarautz
943 890 059
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA

GELATTO

OGI/BERRI

943 578 176
Hemiko eparantzen

lzozki naturalak Opilak

BODEGAS Gailur

01007 BANCOS & CERRA
Tel/Fax: 943 80 91 98
www.bodegasgailur.com

Arabar Errisla

ZUDUGARAI

Gelariako Tostolina

Tel. 943 83 00 80
Fax 943 83 39 92
bakel@zudugarai.com
www.bakelzudugarai.com

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia. Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, krokotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Katu Horia

ΟΙΦΑΙΤΟΓΙΤΣΟ ΚΙΤΣΟ

ESTROPALARI, 10
20810 ORZO

Larriamiaz
943 83 11 66 99 088 80 11 29

www.katuhoria.com

Izarra Elektrogailuak

ESKAINITZA BEREZIAK

PHILIPS 40" 319 €
PHILIPS 32" 199 €
MAGNETRON 19,90 €
BALOI LINTORRABIA 442,15 €
LAPTOP (ARMAGANAK) 315 €

EZ GALDU ZURE AUKERA

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 TIEN 21

Ille apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ZINKU

Igeltseritza orokorra Etxeko enbriofema mola guztiak latrikarak, berru galek, igeltsera...

Andee Zinkunegui
667 740 279

azkue

karrozeria

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Benito forever

Argian argitaratua, 2016ko irailaren 4an



Jon Alonso

Zaharragoak ez diegu transmititzen jakin gazteagoei, antza, zer artista puska den Benito

Uda honetan egin dudana gauza atseginetako bat Benito Lertxundiren kontzertu batera joatea izan da. Baziren urte batzuk azkena entzun nionetik, ez hainbeste hala ere, eta uste dut esan daitekeela, okertzeko inolako beldurrik gabe, urteak aurrera ahala bere burua gainditzen duen artista dela, eta gero eta ikuskizun ederragoak eskaintzen dituela, erloju suitzar baten zehaztasunez funtzionatzen dutenak, daramatzen instrumentista eta ahots laguntzaile aipagarriekin. Gauza bakar bat ez zitzaidan gustatu kontzertuan: ikustea ni nintzela, entzuleen artean, gazteenetako. Zaharragoak ez diegu transmititzen jakin gazteagoei, antza, zer artista puska den Benito; edo beharbada belaunaldien arteko talka betikoa baino ez da; edo agian gure ohiko fribolitateaz eta inbidiaz saiatu gara Benitoren dirdira amatazen. Kontuak kontu, nago, jende askok, gehiegik, haren ibilbidearen une batean edo beste batean Lertxundiren jarraitzaile izandakoak, ez dakiela zertan ari den gaur egun, duela hogeit hamar urte jada onenak eman zituela uste duela; eta gaur haren kontzertu bat entzungo balu flipatu egingo lukeela.

Gure esnobismoak ez dauka mugarik: gure ohiko bidaia horietako batean, zer esanik ez estaturik gabeko nazio horietako batera balitz – Britainia, Eskozia, Irlanda, Flandria –, Orioko kantariaren mailako artista bat entzutea suertatuko balitzaigu, etxera bueltan hari buruzko aipamenak antipodetan ere entzungo lirateke. Bertan edukiz gero, putza. Lertxundi bera izango da, hain segur, huskeria hauengatik gutxien kezkatzen denetakoa. Ematen dituen elkarrizketetan aske eta suelto mintzatzen da, zuzentasun politikoaren kezkatik urruti bizi denaren antzera. Nola ez da aske eta lasai mintzatuko, ba, duela berrogei urte baino gehiagotik *Zenbat gera* kantatzen ari den bat. Orduan entzuten genionean gehiegikeria irudituko zitzaigun igual, eta ez genuen kasu handirik egiten. Gero, komeriak.

Oriokoaren jarraitzaile fidelek ironiaz irakurriko dituzte lerrook, beharbada. Beste musika-molde batzuetara emanago daudenek harriduraz, ausaz. Zorionez ez da falta izan, ezta ere, Benitoz ganora handiagoaz eta luzeago hitz egin duenik ere. Nik aitortu egingo dut entzun nion udako kontzertu horretan, *Zenbat gera* eman zuenean bi ordu eta erdiko emanaldi betearen amaieran, zerbait inarrosi zitzaidala barrutik.



Intza Unanue Arruabarrena

Indarra hartu eta ez eman inoiz amore...

Aste honetan bularreko minbiziaren aurkako eguna izan denez, hitz batzuk helarazi nahi dizkiot min hau gertutik bizi duen orori.

364 egun luzeetan zehar gehienok ahaztu egiten gara min hori sufritzen duzuen horiez. Halako batean, laxo arrosak ikusten ditugu alde guztietan eta orduan konturatzen gara gure lagunak, amak... edo geuk ere min hori izan dezakegula, eta infernu horretatik pasatzen ari zareten emakume asko zaudetela.

Urtero egun hau iristen zenean bueruari bueltaka ibiltzen nintzen, *zergatik ez ote naiz gehiagotan gogoratzen?* Baina alferrik zen, hurrengo urteko egun berbera iritsi eta puntu berean aurkitzen bainuen nire burua. Egoera gertutik ezagutu nuen arte. Askotan beste hainbat aspektutan ere guk geuk bizi arte ez gara konturatzen zer dagoen, eta ez gara hainbeste gogoratzen besteez.

Horregatik, barkamena eskatu nahiko nizueke zuetaz egunero gogoratzen ez garenon izenean. Ea gaurtik aurrera, gure egunerokotasunean present zaituztegun.

Existitu beharko ez lukeen gaixotasun honi aurka egiteko gai zarete. Beraz, indarra hartu eta ez eman inoiz amore.



Herriaren taupadak

Herri batek bizia izateko behar du bizitza; eta bizi ahal izateko, beharrezkoak dira bihotz-taupadak. Herri bizi baten taupada **izan daiteke merkataritza**, patrika hustu baina bihotza edo dastamena gozaten diguten dendariak nahiz ostalariak osatzen dutena.

TESTUA: OLATZARTOLA

ARGAZKIAK: KARKARA ETA ELKARRIZKETATUAK

Herri baten historia konta dezake komertzio batek. Gure aiton-amonen garaitan nolakoa izango zen irudikatzen dugu beren kontaktuzunekin. Gogoan izaten dugu urteak eskuko hatzekin kontaktzen genituenean zer itxura zuten. Baita ordutik izan duen aldaketa ere. Akordatzen gara txoko horietan bizitako pasadizoez, eta, gutxi-gutxitan bada ere, gure sentitzen ditugu. Eta, gure sentitzen ez baditugu ere, herriaren parte direla uste dugu. Herritartasun hori aldarrikatzen du, besteak beste, hiru urtetik hona egiten duten festak. Aurtengo azaroan izango da 3. Moda Astea.

Kronologian atzera

Grabagailua piztuta esan nahi zuten hori esateko hitzik ez zutela izango uste zuten Maite Garcia Lertxundik –Ramiro argazkiak–, Joxe Ramon Iparragirre Aristiguietak–Iparragirre auto zerbitzuak, *Joxenea*–, Maria Lourdes Dorronsoro Azkuek –Dorronsoro janari-denda– eta Jone Gozategi Manzidorrek –Gabon taberna–. Lotsagorrituta zer esan ez zeki-tela zioten, baina, galdetzerako, erantzuten hasi ziren. Haur ziren garaitara egin zuten bidaia eta orduko kontuak kontaktzen hasi ziren. Argazki zahar bat ikusten ariko bagina bezala deskribatzen dute guztia, dendaren txokorik txikiena ere.

Orduko lan moldeak ere ekarri dituzte gogora: *Guztia eskutik eskura ematen zen ordua. Guztia zakutan egiten zen, pisuarekin*, dio Iparragirrek. *Eta zorroak paperezkoak ziren,*



“Hamabost urte egin nituen irakasle lanetan”

MAITE GARCIA

“Ez gaituzte agintzen, baina bezeroaren nahiaren arabera egiten dugu lan”

JONE GOZATEGI

“Negozio propioa izatea oso esklaboa da”

MARIA LOURDES DORRONSORO

“Lehen lana fisikoagoa zen. Orain buruarekin lan gehiago egin behar da”

JOXERAMON IPARRAGIRRE

dio Garciak. *Eta paperarekin eta boligrafoarekin egin behar izaten genituen kontuak. Berriz hartu du hitza Iparragirrek. “Paper elefante” modukoa zen papera. Komuneko papera elefante zen garai hartan. Ez zegoen besterik, dio Dorronsorok. Eta esnea, kristalezko botiletan ematen zuten! Gogoratzen zarete? Galdetu die Iparragirrek. Denak baietz egin dute buruarekin. Eta olio botila handitan ekartzen zuten, eta neguan, hotzarekin, gogortu egiten zenez, kandela jartzen zuten azpian, biguntzeko... Haurtzaroko oroitzapenen nostalgia nabari zaie hitzetan. Memoria fin-fina dute. Datakere ondo aski gogoratzen dituzte.*

Tradizioari segida ematen

Ikasteko gogo handirik ez zutenek, eta etxean lana zegoenez, familiako negozioan hasi ziren lanean. *Duela 60 urte hartu zuen nire amak, baina lehendik ere denda zen, azaltzen du Iparragirrek. Gero, aita jubilatu zenean, nik hartu nuen haren testigua. Orain dela 32 urte inguru izan zen hori. Dorronsoro 14 urterekin hasi zen gurasoenean lanean. Ahizpa, anaia eta hirurok eraman dugu dendaren martxa. Manzisidorren kasuan, bi ahizpak ireki zuten taberna eta, horietako bat, beren ama zen. Amak laguntza behar zuenean laguntzen zien, baina gaixotu zenean, tabernaren ardurak berak hartzea beste erremediorik ez zuten izan. Langile bat daukagu gu baino urte gehiago daramatzana han lanean, Marijo Eizagirre.*

Garciak bazuen ikasteko gogo. Argazkilaritza ikasketak egin zituen, Madrilén. *1961ean ireki zuen denda aitak. Labortegia genuen dendan eta ni hor aritzen nintzen 10-11 urte nituenetik, laguntzen. Gero, ikastera joan nintzen. Urte bete egin nuen Madrilén. 17 urterekin itzuli nintzen eta lanean hasi nintzen aitarekin. Baina, ikasten jarraitu nahi nuenez, irakasle ikasketak egin nituen. 15 urte egin nituen irakasle lanetan. 1991n, aitak jubilatu nahi zuenez eta Orion zegoen argazkilaritza bakarra zenez, dendarekin jarraitzea erabaki nuen. Lanean eszedentzia eskatu zuen, baina orain arte jardun horretan ari da.*

Eskolako gogorik ez zutelako, familiako ogibideari amaiera data ez jartzeko edo herrian lanbide hori ez desagertzeko hartu zuten denda.



Maldan gora gehiago behera baino

Oso esklaboa da. Laurek horrela definitzen dute negozio propio bat edukitzearena. Oso lotua da. Dena den, gauza guztiek bezala, honek ere alde txarrak eta onak dituela diote.

Ez daude inoren menpe eta hori positibotzat ikusten dute. Dena den, beren nagusiak bezeroak direla argitu du Gozategik. *Ez digute agintzen, baina bezeroaren nahiaren arabera egiten dugu lan.* Eta, bezeroaren kontsumitzeko ohiturak aldatu ahala, berak ere lan egiteko modua aldatu behar izan dutela gaineratu dute; bezeroen beharretara egokitu behar izan dutela diote. Honela azaltzen du Dorronsorok: *ekintzaileak %100ean gara. Bizmodua atera behar duzu, beraz, errealitate horretara egokitu behar duzu.*

Bezeroak ez ezik, lan tresnak eta lan egiteko modua aldatu direla azaldu dute. *Lehen lana fisikoagoa zen,* dio Iparragirrek. *Orain, buruarekin lan gehiago egin behar da. Askok aldatu da guztia.*

Bezeroak eskatu bakarrik ez, eman ere egiten dute. *Ezagutu egiten gaituzte eta, askotan, konprenitu egiten gaituzte,* dio Gozategik. *Harremana egiten dugu bezeroekin. Askotan dendariak baino psikologoak gara berentzat, gurekin askatzen dira,* kontatzen du Dorronsorok. Eguneroko hartu-eman horretan loturak sortzen direla onartu dute. Lotura estuak.

Gerora, segidarik ez

Berak jubilatzean dendako pertsona jaitxi eta sarraila giltzaz itxita geldituko dela diote. Ez dute uste beren seme-alabek negozioarekin jarraituko dutenik, ez dituzte horretara animatzen, behintzat. *Bizimodu hobea bat izatea nahi dugu,* dio Gozategik. *Guk lanak eskatzen duen loturagatik gauza asko galdu ditugu eta ez dugu nahi berak ere galtzerik.*

Jarraipenik ez izateak pena ematen dien arren, argi dute errealitatea hori izango dela. Herritarrei ere, ziurrenik, euria egiten duenean kafea hartzen duten taberna, azken orduan erosketak egiten dituzten denda edo kamera digitalarekin ateratako ehunka argazkietako bateren bat inprimitzen dieten denda itxita ikusteak pena emango die.

MODA ASTEA

Aurten azaroan izango da Arkupek antolatutako moda astea, 4tik 11ra, ostiraletik ostiralera. Arkupe merkatariak gain ostalariak ere sartu dira, elkar laguntzeko eta ekitaldi aberasgarriak antolatzeko asmotan. Aste honetan lehen urratsak emango dituzte elkarrekin.

Azaroak 4, ostirala:

- Kontzertuak: Endaia plazan, Kalakari eta Gure Txoko tabernen artean, eta Arrantzale kalean, Karela pizzeriaren eta Arkaitzen artean, Low riders eta Woodstock taldeek kontzertuak eskainiko dituzte, hurrenez hurren. 18:30ean hasiko dira kontzertuak.

- Pintxo Arkupe: Arkupe izeneko pintxo bat egongo da, eta hori janean gero, saski baten zozketan parte hartuko da.

- Atoz, Errusta eta Kalakari tabernetatik DJ Tourra egingo da gaueko 22:00etatik goizeko 4:00etara.

Azaroak 11, ostirala:

- Kontzertuak: Low riders banda eta Woodstock musika akademia Endaia plazan eta Arrantzale kalean. 18:30ean.

· Pintxo Arkupe

Astean zehar, Arkupeko dendaren batean erosketak egingo dira, zozketa batean hartuko duzute parte. 100 euroko bost sari zozketatuko dira.

MERKATARITZAREN ASTEA

azaroaren 4tik 12ra

ELKAGAI DENDA

DORRONSORO
GOZATEGI FRUTADENDA
ALIPROX URANGA
PATXI OUIDEN HARATEGIA
IPARRAGIRRE AUTOZERBITZUA
LOIDI AUTOZERBITZUA
SAYALERO

ZERBITZUAK

OLARIAGA AHOIKULARITZA S.L.
LUIS PADRONES ITURGIANTZA
EGARMENDIA S.L.
AIZPERRO
HAITZ-BERO
ORIO HIZKUNTZAK
EXPO ELEKTRIZITATEA

BESTELAKOAK

FOTO RAMIRO
ARIN Y EMBIL
MAUKA LIBURUDENDA
SAGASTI LEIHOAK
2 GURPIL
URAITZ LURRINDEGIA
EKI-LORE
IZASKUN ESTANKOR
VIDEO IZARRA (TIEN 21)
AITZARIAK UZASO
ROSANA ARGAZKILARIA
URANGA BURDINDEGIA
ORIO OPTIKA
ANARRI OPARIAK
ZIPRISTIN INPRIMATEGIA

JANTZI ETA ZAPATA DENDA

BEREZI BOUTIQUE
NAHIKARI UME ARROPAK
KAÏOA
LUA BOUTIQUE
ORIO'S SHOP
ITZIAR KIROLAK
ARDATZA BOUTIQUE
ROSA HAUR ARROPAK
ROSES'S
TTIPI-TTAPA
LAMIA
GARBIÑE ARREGI



TABERNAK

ARKAITZ TABERNA - KUTIXI - XIXARIO ERRETEGIA - ITZALA KAFETEGIA - HATOZ - ERRUSTA
BOGA-BOGA - GABON TABERNA - KALETA PIZZERIA - BARAKA TABERNA - GALERNA JATETXEA
ANTILLA JATETXEA - SALATXO TABERNA - NIKO KAFETEGIA - XALOA ORIO S.L. - KALAKARI TABERNA
GOXOKI AZKUE - OGI BERRI / GELATTO - ATERPE TABERNA - SUKIA TABERNA - GURE TXOKO



* Zerbaki sarrituek azaroaren 15ean jakinaraziko dira herriko dendetan eta karkaran.



Ohiko erronomia, baina sorpresaz betea

Igandero biltzen dira Aristerrazuko plazan besoak jaso eta oinak dantzan jartzeko. Erronomia izaten da arratsaldeko 18:30etatik hasita, 21:30ak arte. Urriaren 23an ere egin zen, ohi legez, baina oraingo honetan ikutu berezi bat izan du jaiak, Astiazaran anaiei omenaldia egin baitzien.





Astiazaran anaiei eskerrik beroenak

Urte luzez aritu dira plazaz plaza eta erromeriz erromeri Astiazaran anaiak. Kontzertuak emateari utziko diotela iragarri zutenek, beren ikasle izandakoek eta erromeri zaleek orain arte egindako lanagatik eskerrak emateko festa sorpresa egin zieten Aian, Aristerrazuko erromerian.

“Bizi izan garen toki guztietan etxean bezala sentitu gara”

Ione Lertxundi

Ingeniaria

Etiket kanpora kasik etxean baino urte gehiago daramatza Ione Lertxundi Azkuek -Orio, 1978-. Herrimina sentitzen du noiz edo noiz, baina maleta etxekoen eta gertuko berotasunarekin betetzeko egiten du tarteka geldialdia Orion. Hurrengo geltokia zein izango den pentsatzen dabil; eta Orio oraingoz hori izango da, tartekako geltokia.

TESTUA: O. ARTOLA APEZTEGIA

ARGAZKIAK: IONE LERTXUNDI

Hara eta hona ibili da azken hamar urteotan Ione Lertxundi. Lanegatik Madrilera joan zen. Espainiako hiriburuan zuen egoitza nagusia, baina esku artean zuen proiektuaren arabera batera edo bestera joatea egokitzen zitzaion: Budapestera, Lisboara, Herbeheretara... Azken horretan, orain arte bidaiatzen izango zuen bikotekidea ezagutu zuten. Elkarrekin Australiara joan ziren, baina hura ez da beren azkenengo geltokia izan.

Orietik Madrilera, Madrildik Herbeheretara eta Herbeheretatik Australiara.

Gerora nire senarra izango zenarekin topatu nintzen Herbeheretan. Bera amerikarra da, Dallasekoa. Elkarrekin jarraitu nahi genuen eta horretarako aukera bat elkarrekin norabait joatea zen. Australiara joatea erabaki genuen.

Ordura arte egiten genuen lan berbera egiten genuen, baina Herbeheretan egin beharrean, Melbourneko bulegoan

egiten genuen. 18 hilabete eman genituen han. Asko bidaiatu genuen Asiatik, baita Zeelanda Berritik ere. Asko gustatzen zaigu bidaiatzea.

Toki berriak ezagutzeko senari ezin eutsi, eta Australia ere utzi zenuten, ezta?

Ez genuen Australia utzi nahi, baina bikotekideak master bat ikasi behar zuen Singapurren, horregatik joan ginen. 10 hilabete egon ginen han. Hego Koreako lan aukera bat sortu zitzaion bikotekideari, eta esan genuen: zergatik ez?

Beraz, Singapurretik Hego Koreara...

Seulen egon gara azken bi urte eta erdian, hiriburuan. 2013ko abenduan joan ginen hara eta orain arte.

Azken hamar urteak bidaiatzen pasa dituzue orduan.

Bai.

Askotan banaketa hau egiten dugu tokiak ezagutu ahala: bidaiatzeko toki egokia da baina ez bizitzeko edo bizitzeko





toki egokia da. Zuk sailkapen hori egin al dezakezu ezagutu dituzun tokiekin?

Bizi izan garen toki guztietan etxean bezala sentitzea lortu dugu. Hala ere, zailena, Korea izan da guretzat; nola hizkuntzagatik, hala kulturagatik. Kosta egin zitzaigun hasieran hango bizimodura egitea. Ez da erraza han bizitzea. Seul erraldoia da, 25 milioi biztanle dauzka.

Bizitzeko Melbourne aukeratuko nuke, dudarik gabe. Bisitzeko Zeelanda Berria, ez du parekorik! Eta Asian, Sri Lanka sorpresa bat izan zen. Zoragarria da. Jendea oso alai da, beti irribarrez daude. Askotan pentsatu dugu hara joatea bizitzera.

Jaioterriarekiko lotura handia ehundu ohi da. Askotan beldurra ematen du kanpora joateak, etxean ez sentitzeak. Zuek beldurrik ez, ezta?

Etxe kontzeptua lausotu egiten da. Hona etortzean geroz eta gutxiago sentitzen dut hau nire etxea dela. Galdu egiten duzu sustraiekiko lotura hori. Edozein lekutara molda naitkeenaren sentsazioa daukat, edozein toki etxe egin dezakedala.

Toki guztietan etxean bezala egonda, herriminik sentitu al duzue?

Bai, noski. Baina hona etortzean, segituan izaten dut kanpora joateko gogo. Kanpoan zaudenean etxea idealizatu egiten duzula uste dut. Oroitzapenak positiboak izaten dira. Familia hemen dago eta horiek faltan sumatzen ditut, baina ez dut uste hona etorriko naizenik bizitzera. Gero eta gehiago bidaiatu, mundua gero eta handiagoa dela ohartzen zara. Bidaiatzen jarraitu nahi dut.

Hizkuntzak lagundu egingo du lurralde berri batera egokitzeko, ezta?

Bai. Toki guztietan ingelesez komunikatu gara. Orain korearra ikasi dugu, baina ingelesez erraz moldatu gara, baita lanean ere. Alemanian ere bizi izan ginen Koreara joan aurretik eta han alemana ikasi genuen.

Toki guztiz ezberdinetatik ibili zarete, gainera.

Bai, baina ama izan naiz eta, ordutik, perspektiba aldatu egin zait. Hurrengo urratsa zein izango den pentsatzen gaude orain eta erabaki horretan baldintzatu egiten du haurra izateak. Ez dugu Asian jarraitu nahi.

Umeak izan dezakeen heziketarik?

Hori da. Seuleko gauza txarretako bat kutsadura da. Egunez, etxetik atera baino lehen, dagoen poluzioa begiratu behar da. Haizearen arabera da, kutsadura Txinatik baitator. Jendeak arnasketa arazoak dauzka, bereziki haurrek. Asmatikoak dira asko eta bronkitisa zabalduta dago txikiengana. Horrek zer pentsatua ematen du, atzeraka botatzen gaitu.

Bidaiatzean haur baten heziketan guztiz ezberdinak diren hainbat toki ezagutuko zenituzten. Hori baliagarria izango da erabakia hartzerako garaian, ezta?

Europa iparraldeko herrialdeek asko erakartzen gaituzte, Eskandinaviak adibidez, baita Alemaniak ere. Baina, tira, ikusiko da.

Momentuaren arabera bizitoki bat aukeratzen duzue...

Hori da. Eta orain haur bat daukagunez, horren baitan erabakiko dugu, ziurrenik.

“Zenbat eta gehiago bidaiatu, mundua gero eta handiagoa dela ohartzen zara”



Eta lana? Batera eta bestera ibiltzean askok helburutzat duten lan-egonkortasuna hori lortzea ia ezinezkoa da...

Horrek ez dit beldurrik sorrarazten. Azkenean, edozer gauza egin dezakezula ikasten duzu. Beti dago aukeraren bat. Horretan sinisten baduzu, lortuko duzu.

Lehen aipatu duzu Korean kosta zaizuela gehien egokitzea...

Kontuan izan behar da nondik datozen, zer bizi duten. 50 urte egon dira japoniar inperioaren menpe; gerra bat ere bizi izan dute... asko sufritu dute. Munduko herrialde pobreenetakoa izatera iritsi zen. Miseria gorrian bizi ziren. Zulo horretatik atera dira, eta ez baliabideak dituztelako, baizik eta lan mordoa egin dutelako. Beren bizimodua, beraz, lana, lana eta lana da. Nik ez dut horrelakorik sekula ikusi.

Komunitateak ere garrantzia handia dauka. Krisitik ateratzeko baliozkoa zuten hori eman zuten. Askok ezkontzako eraztuna eman zien gobernuari herria aurrera ateratzeko, esaterako. Pentsa! Oraindik ere eutsi egiten diote leialtasun

horri.

Australiako kultura anglosaxoiagoa da. Korea oso inpaktantea da. Bereziki lan munduan...

Lan egoera eta baldintzak Txinan bezalakoak al dira han?

Ez, askoz ere hobeak. Korean baldintzak onak dira. Baina, kontua da, barne-barnean sentitzen dutela lan asko egin behar dutela, kulturala da. Norberak bere burua lehendabizi enpresari eskaintzen dio, eta, gero, familiari. Lehentasuna lana da. Ez dute ulertzen guk oporrak hartzea, adibidez. Beren denbora librea ere enpresari eskaintzen diote.

Lan baldintza onak, baina lan ordu asko... Eta zuek? Beren baldintza berberak al daukazue?

Gu desberdin tratatzen gaituzte, zuriak garelako.

Lana lortzeko ikasketei ere garrantzia handia emango dietela imajinatzen dut...

Bai. Haurrek bost ordu egiten dituzte lo. *Bost ordu lo eginez gero, agian, bizitza ona izango duzu. Lau ordu eginez gero, ziurrenik arrakasta izango duzu...* Horrelako esaldiak dauz-



kate.

Ikasteko zailtasunak dauzkanak arazo sozialak izango ditu, orduan.

Bai. Suizidio tasa munduko altuena da, baita alkoholismo tasa ere. Alemana ikasten egon naiz han, gazteekin. Gazte horien helburua kanpora joatea da. Horrenbesteko presioa sentitzen dute, alde egin nahi dutela.

Eta teknologia? Asia teknologia berriekin ere lotzen dugu.

Teknologian punta-puntako lurraldea da Korea. Japoniaren parekoak dira mundu mailan. Garrantzia handia ematen diete beren teknologia garatzeari. Munduko seigarren indarra izatera pasa dira eta guztia teknologiari esker.

Koreera ikasi duzuela ere aipatu duzu. Zaila egin al zaizue?

Oso zaila. Ordu asko eman genituen horretan, eta, hala ere, ez gara koreeraz lan egiteko gai. Eguneroko elkarrizketetarako bai, baina lanerako ez. Sinbologia bat daukate eta ikasteko erraza da, pare bat egunetan irakurtzen ikasteko adina. Enperadore bat izan zuten, zeinak analfabeto asko zirela ikusi zuenean, hizkuntza erraztea pentsatu zuen. Irakurtzeko erraza da, gramatika-eta askoz ere zailagoak dira.

Komunikatzeko moduko maila daukazue, ez da gutxi.

Gainera, gure lagunak kanpotarrak dira, ez baita erraza bertakoekin erlazionatzea. Orduan, ez dugu hizkuntza horrenbeste menperatzeko beharrik izan.

Bertakoekin harremana izatea zaila Korean egin zaizue ala toki guztietan?

Korean kanpotarrik ia ez dago. Kanpotarren %4a militarrik

“Korean suizidio tasa munduko altuena da, baita alkoholismoarena ere”

“Korearrentzat Korea bakarra da, eta bat izatea nahi dute. Egunen batean elkartuko direnaren itxaropena daukate”



dira, Estatu Batuetako base bat baitago. Ingeles irakasle mordo ere badago, eta, gainontzekoak, ingeniariak gara. Zuri oso gutxi daude.

Eta Australian, adibidez?

Han oso irekiak dira eta lagun asko egin genituen, baina oso oso gertuko harremana euskaldunekin egin genuen. Azkenean zure egoera bereberean daude eta, ez dakit horregatik den edo, horiekin erlazionatzen gara. Egin ditugu bertako lagunak, baina ez horrenbeste.

Bertakoak errutinaren gurpilean sartuta gauden bitartean, kanpotar bat iristen da eta beretzat dena da berria. Ez du erraza izan behar hemen lagunak ere egitea.

Bi urte, gainera, epe laburra da benetako lagunak egiteko. Ez du denborarik ematen.

Txina eta Japon aipatu ditugu. Korea bi herrialde horien eraginpean bizi al da?

Hego Korea japoniarren diktadurapean egon zen. Koreako kultura suntsitzen saiatu ziren. Oso gaizki tratatu zituzten, ondorioz, japoniarrei gorroto handia diete. Baina, egia da, ekonomikoki, dependentzia handia dutela Japoniarekiko. Teknologia asko han saltzen dute.

Ipar Korearekin duten harremana dela eta, Txinarekin ez dute oso harreman ona. Txinatik material asko inportatzen dute, beraz, lotura badago. Eta Txinatik turista asko joaten dira Koreara, bereziki kirurgia plastikoa egitera. Korean obsesionatuta daude edertasunarekin. Biztanleriaren %60k operazioen bat egin du. Ederra izatea betebeharrak balitz

bezala ikusten dute, beren lana dela uste dute. *Ez bazara ederra hori lortzeko nahikoa lan egin ez duzulako da.* Hori pentsatzen dute.

Edertasun kanonak hemengoak bezalakoak al dira?

Oso desberdinak dira. Azala oso zuria eta aurpegia txikia izatea. Begi handiak. Sudur handia. Emakumeak eta gizonak, guztiak operatzen dira.

Biak berdin?

Ez, emakumeak gehiago. Oraindik oso matxista da. Teknologikoki eta ekonomikoki asko garatu dira, baina sozialki ez da garatu.

Nola bizi dute Ipar Korearekin duten gatazka?

Pena handiarekin. Familia asko bananduta daude, batzuk iparraldean eta besteak hegoaldean bizi direlako. Berentzat Korea bakarra da eta bat izatea nahi dute. Egunen batean elkartuko direnaren itxaropena daukate.

Iritsi ginenean protokolo bat zeukatela azaldu ziguten. Edozer gertatuz gero, metro sarrera guztiak bunkerrak direla esan ziguten, beraz, hara sartzeko. Tentsio momentuak badaude, estatu batuarrek proba militarrek egiten dituzten egunak esaterako. Iparraldekoek probokazio gisa ulertzen dituzte eta itsasora misilen bat edo botatzen dute. Guztia probokatzeko da, sekula ez da ezer gertatzen. Eta ez dut uste gertatuko denik.

Hego Korea erasoko balute amerikarrak atzetik joango lirakeela badakite, eta hori ez dute nahi, ezta Txinak ere, interes handia baitaukate Ipar Korean.



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Zaragueta
Herri Eskola Orioko

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuritza.net



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

arkaitz taberna
orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko dezentasun familia egarriez osatutakoak

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889  argine/jantziak

KAXAIO
PLADURRA ETA ESKAIOLA

Konponketa eta berrikuntza lanak
pladurra eta eskaiolarekin

4josemaria@gmail.com
656 777 574

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK



ABESLARI, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO 943 53 64 94 - 697 23 86 56
(Serra Arrantzele kalea) libegarmendak@gmail.com



943831048
610697668
www.fotoramiro.com



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzele kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

It's a Malen!



Xabier Etxeberria

Haurrak ez du galdera ulertzen. Oraindik ez baitaki mutilek berez nahiago dutela mutilekin jolastu eta neskek neskekin



araitsu honetan izan zen, iaz. Ikasturtea hasi da, haurrak ikastolan, gurasoak parkean. Ezer ez da aldatu. Errutina nagusi.

Berritasun bat ere bada, ordea. Ameriketatik gurera euskara ikastera etorri den familia bat. Euskaldun izan nahi dutenek euskaldun izaten saiatzen ez garenoi emandako beste lezio-zaplazteko eder bat.

Haurrak inguru berrian nola moldatzen ari diren galdezka telefonoz aiton-amonak. Han ere hemengo kontu berberak galdetuko dituzte. *Ondo jaten al duzue? Txintxoak al zarete? Laguntxo berriak egin al dituzue?* Txikienak baietz, ikastolan sarri jolasten dela Malenekin. Amonak Malen izena lehenengoz entzun duenez, jakin nahia du: *Malen is a boy or a girl?* Malen hori mutila al den edo neska, alegia. Eta bilobak, harrituta:

- It's a Malen!

Erantzuna, bistan da, *wonderfullgarria*. Malen bat da, eta kitto! Haurrak ez du galdera ulertzen. Oraindik ez baitaki mutilek berez nahiago dutela mutilekin jolastu eta neskek neskekin. Oraindik ez daki mutilek berez futbolearen aritzea dutela gustuko eta neskek panpinekin dendetara. Oraindik

ez diogu irakatsi neskek berez kolore arrosa atsegin dutela eta mutilek urdina, eta abar eta abar eta abar.

Pentsamendu horiek buruan ditudala etxerakoan, gauza garrantzitsu bat ahaztu zait. Alabei ez, ordea.

- Aita, ostirala da.

Ostirala = *Txutxeak*. Helduok pintxo-potea eta gure litxarkeriak nola, haurrek ere berenak merezi/behar dituztela aspaldi ulertua dut eta ostiral arratsaldetako zerga ordaintzera sartu gara gertueneko litxarkeri dendara. *Ei, neskak, gogoratu: bost gauza. Bost bakarrik!* Txikienak, txokolatezalea izanik, kinder arrautza horietako bat nahi omen du. *Non daude?* dendariari galdetu eta harek:

- Kinder neskena edo mutilena?

- Barkatu!?

Dendariaren azalpena, ogasun teknikari batena bezain zehatz eta tristea:

- Mutilek spidermanen jostailua dakarte barruan.

Neskenek hello kittyrena.

Txistua irentsi dut. Begirada sabaira. Zeruko aita barka itzazu pekatarien pausoak. Hello kittyrena erosten bukatu beharko dudala jakinda, eztarrian gora datorkidan orrua geratzen saiatu naiz.

- No me jodas! It's a kinder!

ttipi

ttapa

AZAROAN

% 10

DESKONTUA

*kupoi hasi denden aurki-etzin

oinetako eta arropa denda

943259695

ttipittapa.oihane@gmail.com

Eusko Gudariak, 15 - 20810 Orio

Inklusioaren aldeko mezu ederra



Inklusioa du hizpide Jendartean bidaide antzezlanak. J. ZABALETA

Jendartean bidaide

Antzezlanak, Alex Tellok zuzendutako antzezlanak, inklusioaz. Urriaren 6an izan zen, Kultur Etxeko areto nagusian.

Alex Telloren zuzendaritzapean aktore-kuadrilla bikaina ikusteko aukera izan genuen urriaren 6an kultur etxeko areto bete-betean. Antzezlanak iaz Usurbilen egindako Kilometroak jairako prestatu zuen Alex Tellok eta Orioko Udalak ekarri du gurera aurten, Berdin-Berdin kirol inklusiboko elkarteak proposatuta.

Gizarte-inklusioaren aldeko mezua zabaltzea da antzezlanaren helburua: gizarte honetan denok gara desberdin eta denok ditugu, gure gaitasun propioak bezalaxe, gure ezinak eta mugak ere. Hori onartu eta desberdintasuna poztasunez bizitzeko aldarria egiten du 'Jendartean bidaide' antzezlanak, begiratu positiboa eskainiz askori urrutikoa zaion errealitateari.

Aktoreen lana bikaina iruditu zitzaidan; elkarrizketak, musika eta dantza uztartzen dituen gidoia, berriz, ondo josia eta alaia. Primerako ikuskizuna izan zen, gozatzekoa.

Taldea beste antzezlan baten ideia lantzen ari omen da orain. Ea hori ere Orion ikusteko aukera dugun!

JABIER ZABALETA

**SU
KIA**
TABERNA · JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129
ABAROMENDI 38, 1. BAXUA



BPXport
Barrio Sanjo Erreka, 910 Aia
Tel. 943 89 44 28
www.bpxtecnificacion.es

Oinarrizko Esfortzu Proba
(Behaketa y Elektrokardiograma)
+ EKOKARDIOGRAMA : **145€**

Esfortzu Proba Aureratua
(Behaketa, Elektrokardiograma eta azido laktikoa)
+ EKOKARDIOGRAMA : **169€**



Oroimenaren kutxa

Argazkikoak oriotarrak dira, Orioko pilotazaleak, ez oriano, ez orienseak. I. ITURAIN

Orioarrak, ijitoak, aguilucho, orianos, oriorratas, orienses...

Donostiarrak, usurbildarrak, oriotarrak, aiarrak... Euskaraz erraza da herri bateko biztanlea izendatzea, jentilizioak aise lortzen ditugu herriaren izenetik abiatuta. Batzuetan zalantzak izaten dira, hala ere. Aginagako batzuek orioarrak esaten digute Oriokooi. Beste batzuek zalantza izango dute usurbildar edo usurbiltar behar ote duen, aiarra edo aiatarra... baina tira!

Gaztelaniaz zailagoa da, *madrileño/a, bilbaino/a, pamploñés/a, guipuzcoano/a...* Ba al dakigu nola esaten zaien Badajoz edo Ciudad Realeko biztanleei? Inork pentsatu al du nola deitzen ote diguten Aiako eta Orioko biztanleoi espainiarrek, -tar atzizkiaren berri ez dutenek?

Antonio Uranga *Iñarrak* eta biok unibertsitatean estudiatu genuen garaian, lagun kolonbiar bat izan genuen. Hark, ezagutu gintuenean, *oriano* deitzen zigun, oriotar hitza ikasi aurretik.

Seguru asko, oriotar askok jakingo dute nola deitu zigun Antolin García kazetariak 1969an TVEk Oxford-Cambridge-Orio estropadaren zuzeneko emanaldian: *Los oriorratas*. Jentilizio xelebrea asmatu zuen guretzat. Geroztik makina bat adar jotze izan dira horren kontura. Beharbada horregatik jasoko zuen 1970ean kirol kazetaritzako *Antena de Oro* saria, Orion esandakoagatik. Aukeran, oriorrata baino politagoa da beste kazetari batek arraunlarientzat asmatutako garai bateko *aguilucho* hura, gerora Benitok euskaratua -*mirotzak*-.

Ijito edo *gitano* ere deitzen digute Oria itsasoratzen den eremuko herrikooi. *Zergatik da hori? Zergatik deitzen dizute ijito oriotarroi?* Herrian ez da pertsona heldurik izango inor galdera hori egin ez diotenik. Eta erantzuna asmatzen ibili behar izan dugu guztiok: estropadetako apustuengatik, ijitoek kanpalekua Orioko kanpoaldean jartzen zutelako,

beste herrietakoek inbidia digutelako, ijito samarrak garelako... Batzuek abildade gehiago dute erantzuna ematen, baina denok ere aspertu samartuta egongo gara honezkero galdera topikoarekin.

Orain, Rikardo Uzkudunek bidalitako *whatsapp* baten bidez, aldizkari batera iritsi naiz, XIX. mendeko El pelotari-ra. Madrilen argitaratu zuten, 1893tik 1895era. Orduan Madrilen pilotan jokatzeko zuten, frontoiak zeuden, pilotari profesionalak, ia denak euskaldunak. Pilota maite zuten Madrilen, mimatu eta zabaldu egiten zuten. Eta pilota eta pilotariei buruzko aldizkaria ere egin zuten: El pelotari.

Berripaper haren bidez, jakin dugu orduko pilotarien berri. Batzuk ezagunak genituen lehendik ere, adibidez Bittor Enbil eta Gabriel Pedros; baina Manuel Martikorena ere agertzen zaigu haien artean eta Jose Sarasua aiarra ere bai.

Garai hartan era horretako aldizkariak ohikoak ziren. Kubako hiriburua La Habanan ere izan zuten pilotako aldizkari bat bi urtez -1903-1904-, Beti Jai izenekoa. Orduan La Habanan Jai Alai izeneko frontoi dotorea zuten. Aldizkari hartan Orioko beste pilotari baten berri ematen zuten, Jose Solabe-rietaarena.

Zu, irakurle, honezkero galdezka hasita zaude: zertara dago aldizkari horien aipamenak? Ba, hara, Aia eta Orioko pilotariak agertzen direla esana dago lehen ere, baina aldizkari hartan topatu dudatu niretzat interesgarriena da Gabriel Pedros pilotari oriotarrari ematen zaion izen jentilizioa: *oriense*. To! Pilotari oriotarrari *oriense*, alajaina! Polita.

Beraz, oriotar eta ijito izen eta ezizen *ofizial* eta ezagunetz gain, *orioarra, oriorrata, aguilucho, mirotza, oriano* eta *oriense*. Horren herri txikia izateko, ez dago gaizki!



Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Endala Enparantza, 1
20810 Orío (Gipuzkoa)

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



Galerna JATETXEA

Antillako Hondartza 5
20810-Orío-Tel.:943 89 04 16

URAITZ

barrendetia
jantzi-ogardak

Endara, 3 Tf: 943 83 18 97



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDULO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.com
20810 ORIO

- ATSEK INKIZIEN DITUGU
- SARRAILA-IZILDORO ALDAKETAK
- ATSEK IXTEKO MALDUGINTZ ALDAKETA
- KOMUNITATEREZTZA ZERBITZUA

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBINE ARRILAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 41

www.facebook.com/rosaarrillaga

8104 DESKONTUJA FAMILIA LAGARIENTZAT



sinergia

FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA
TF.: 943 130 577

WWW.SINERGIA-WEB.COM
685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



ASADOR
XIXARIO

Farka Galerna Kalea, 2
Tel. 943 800 019 - 0810



ARISTERRAZU

jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21



obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

borja agirresarobe lopetegi
heniko-bara 6. behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com



Lizaso
dekorazioa

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

Gabon

TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09



ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



“Normalean bezeroak aukeratzen du”

Maite Oregi

Barne diseinatzailea

Oraingoan, guri egokitu zaigu elkarrizketa bat idaztea KARKARARENTZAT. Guk Orion dagoen *Maite Oregi Barne Diseinuako* diseinatzailea eta jabea den Maite Oregi bera aukeratu dugu.

Non bizi zara?

Aian bizi naiz.

Zenbat urte dituzu? Eta noiz egiten dituzu?

42 urte ditut. Otsailaren hogeita zazpian egin nituen.

Zer zaletasun dituzu, Maite?

Bada, hondartzara joatea eta mendian ibiltzea gustukoa dut.

Kirolik egiten al duzu?

Orain ez, lehen korrika egiten nuen, baina orain, ez. Ahal dudanean ibiltzera jotzen naiz, baina zoritxarrez ezin izaten dut egunero egin.

Zer ikasketa egin dituzu?

Dekorazioa eta diseinu grafikoari buruzko ikasketak egin ditut.

Zer altzari mota saltzen dituzu?

Denetarik saltzen da; estilo askotakoak, material desberdinetakoak... aukera zabalagoa dago, batzuk merkeagoak eta beste batzuk garestiagoak.

Nondik erosten dituzu altzariak?

Toki askotatik ekartzen ditut altzariak: Euskal Herria, Espainia eta Italiatik.

Zertan datza zure lana?

Nire lana izan daiteke aholkatzea, plano batzuk egitea edo etxe oso bat dekoratzeko aurrekontu bat egitea. Hortik abiatuta bezeroaren nahiaren bukaerara arte.

Nola erabakitzen da zer altzari mota jarri etxe bakoitzean?

Bezeroak nahi duen bezala edo bestelarik aholkatzen diet. Baina normalean bezeroak erabakitzen du zer jarri. Nik, aukeran, nahiago izaten dut horrela izatea, hartara, jabearen gustuak eta joerak islatuta gelditzen baitira proiektuan.

Bezeroak ados egoten al dira zure erabakiarekin?

Bai, gehienetan bai, behintzat. Normalean nik bere ideia bideratu egiten dut, baina suposatzen da erosten badute, nire proposamenekin ados daudela. Azkenean neu naiz aditua baina norberak agintzen du bere gustuetan.

Lan asko egiten al duzu?

Ba orain momentuan bai, baina boladak izaten dira. Lanbide hau horrelaxe izaten da: batzuetan asko eta bestetan ez hainbeste.

Dekoratzailerik izateaz gain gustatuko al litzazuke beste zer baitetan lan egitea?

Ba momentuan ez baina, eduki izan ditut beste lan batzuk dekoratzailea izan baino lehen.



Itsaso, Suhar, Nahikari, Maitane eta Nerea.

Goiko parkea

Kaixo, gu 6. mailako Lardizabal Herri Eskolako ikasleak gara. Itsaso, Suhar, Nahikari, Maitane eta Nerea dugu izena. Gaurkoan gure herriko parke kuttunetako bati buruz hitz egingo dizuegu. Parke hori gure frontoia aldamenean dago, eta guk goiko parkea deitzen diogu.

Irailaren azken astean, gure herriko parkeetako bat kendu zuten. Pixka bat zahartuta zegoelako eta arriskurik ez egoteko. Umeak parkera iritsi eta parkea ez zegoela ikusterakoan harriturik eta pena handiz geratu ziren. Gure ustez, parke berri bat jarri beharko litzateke umeak arriskurik gabe ibili eta ondo pasa ahal izateko.

Udalekoek erabaki zuten oraingo toki horretan ez dutela parkerik jarriko, baina guk espero dugu hemendik gutxira, gure parke kuttunean berriro jolastu ahal izatea. Hala ere, beste parke batean ibili nahi baduzue bi parke daude kaskoan eta, parkeak ez bazaizkizu gustatzen, futbol zelaia eta frontoia ere badaude. Baina gogoratu gure herria txukun mantentzea.

Irailaren azken astean gure herriko parkeetako bat kendu zuten

Muga administratiboak, oztopo, burujabe izateko



Orioko itsasadarraren irudi bat . KARKARA

Oria ibaia Otzaurteko magalean jaiotzen da. Zegamatik Oriorako bidea egiten du ibaiak eta Orion itsasoratzen da. Orioko itsasadarra Natura 2000 Sarearen baitako eremua da. Sare horrek interes berezia duten habitat eta espeziek babesa du helburu. Horrek zer esan nahi du? Oriako itsasadarra babes bereziko eremua dela.

Muga administratiboak

Plaza ondoko zubitik itsasorainoko eremua, moila bazterretik, Portuko zuzendaritzaren *-Puertos-* eskumena da. Eremu horretan zer egin daitekeen eta zer ez, haiek erabakitzen dute. Zubitik atzera, ordea, Gipuzkoako Uraren eta Itsasertzeko Zuzendaritzaren *-Costas-* eskumena da. Zonalde batean nahiz bestean, beraz, azken hitza haiek daukate. Bi erakunde horiek Udalalari mugak jartzen dizkiote, honek buruan izan dezakeen edozein plan martxan jartzerako garaian.

Motondoren eskumena Udalarena

Motondon dauka aginte makila Udalak. Motondo Udalarena da, 2.000.000 euroko kostua zuten lurra erosi baitzituen. Orioko itsasadarraren parte den eremu hori, beraz, Udalarena da.

Udalak oraindik ez du erabaki zer egin eremu horretan, baina berak du erabakitzeko eskumena. Duela urte batzuk proiektu bat garatu zuen baina ezerezean gelditu da. Eta, gerora, legeak esan du eremua lehengoratzea dela aukera bakarra. Hala ere, etorkizuna ezbaian dago.

Beste bigune

Orioko itsasadarrak baditu beste bigune historikoki garrantzia handia dutenak. Bata Sarikola da. Aginagaren eta Orioren arteko mugatik gertu dagoen auzo-gunea da, burdinola zegoena. Bestea Mutiozabal da. Udalak urte honetan erosi du diputazioak emandako 47.981 euroko diru-laguntzarekin.

Orain biziberritze plan bat garatu nahian dabil Udala. Eraikinaren egoerak berak presa ematen du, baina kontu hau ez denez ahuntzaren gauerdiko ez-tula, pazientzia ere eskatzen du.

Elkarlana beste herrieekin

Urola Kostako Udal Elkartearen zereginetako bat herrien arteko elkarlana sustatzea da, eskualdearen onerako. Oriako itsasadarrak Orio, Aia eta Usurbil lotzen ditu, eta, Usurbil eskualdeko udalerrria ez izan arren, haiek elkarlaren bat egitea.

Usurbilen, Errioa bizi!

Egitasmo bat jarri du Usurbilgo Udalak martxan Orio ibairako Ekintza Plana garatzeko. Kezka sortu zitzaiten paisaiaren kalitatea nabarmen murriztu delako, eta erraustegia ere mehatxu gisa ikusten dute. Okerrera ez joateko, aurkakoa, egoera hobetzeko, Errioa bizi! proiektua jarri dute martxan.



Orioko itsasadarra: Orioko ondarea

Itsasadarra Oriok duen ondarea dela esatea, aho batez onartu daiteken baieztapena da. Naturaz gozatzeko eta aisialdirako ekintzen garapenerako aukera paregabeak eskaintzen ditu. Botanika eta zoologia alorretan duen garrantzia ekologikoa babestu behar den eremua izanik, Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Planean sartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Orioko EAJk itsasadarraren babes honekin bat egiten du, baina eremuan duen kompetentzia ezak ez dio Udalari aukera handirik ematen. Izan ere, itsasadarra osatzen duten eremu ezberdinetan, eskumena duten erakunde ezberdinekin topo egiten dugu. Hau honela izanda, eremu hauetan garatu nahi diren ekimenetan beste administrazio batekin eman behar den elkarlana ezinbesteko elementu bihurtzen da. Orioko EAJk herriari onura ekarriko dituen proiektuak aurrera ateratzeko elkarlanerako -administrazioak nahiz udalak- beti prest azaldu da.



Orain

Itsasadarra eta muga administratiboak

Mendira joan eta herrialdeetako mugarri batekin topatzen zarenean, nork ez du jolastu umeekin hanka bat Bizkaian daukazula eta bestea Gipuzkoan? Oriotik mendira joaten bazara eta perretxikoak aurkitu, lagunei *azaña* azaltzerakoan, segurua izango da esaterakoan Orioko lurretan jaso dituzula edo Aiakoetan edo Usurbilgoetan?

Menditik erriora jaitsita, arraintxoek herrietako muga administratiboak pasatzerakoan, karneta erakutsi behar dute? Orain talde politikoak eskatu du era eta modu askotara, Motondoren proiektuari bultzada emateko, dagokien erakundeekin bilera eraginkorrak izatea. Alkatetzatik ez dugu erantzunik jaso.

Itsasadarra Aia, Orio eta Usurbil herrietako lurretan dago eta, noski, bere garapen jasagarria hiru udalen proiektu amankomunean oinarritu behar da.



EH Bildu

Herrien arteko bizikidetzeta eta elkarlana

Mugakide diren herriekin amankomunean jarduteak aberasgarria izango litzake eta aukera berriak irekiko lizkiguke. Ditugun azpiegiturez gain, herriko turismoan eta ondorioz ekonomian ere eragin handia duten baliabide hauek elkarbanatzen ditugu: Donejakue bidea, Gipuzkoari bira ematen dion GR 121 eta Orio ibaiaren itsasadarra: Bere balio handiarengatik Natura 2000 sarean txertatuta eta babes bereziko eremua izendatuta dagoena. Usurbillen hasiak dira ekosistema berezi hau babesten, Orioko herriak Motondo berreskuratzeko izendatua zuen dirulaguntza ez zuenean onartu eta Aldundiak erriogan goraxago dagoen Saria eremua berreskuratzeko erabili zuenean. Herri bakoitzak bere aldetik jardun beharrean, bailara edo eskualde mailan bultzatzen diren egitasmo edo proiektuak indar eta kohesio handiagoa da. Europatik, diru-laguntzak emateko garaian oso kontuan izaten dute ikuspegi hori, eta nola ez itsasadarra bere osotasunean Natura 2000n BBE izendatuta badago.



PSE-EE

Hilabete honetan iritzirik ez

Hilabete honetan ezin izan dute iritzirik idatzi

Ekonomia

Kaltea eragin du hegaluze kanpainaren itxierak



Sareko arrantzaren kanpaina bukatuta sanpedroak ospatzen dituzte Orioko arrantzaleek, eta, behin herriko festak bukatuta, hegaluze bila ateratzen dira. Sanpedroen ondoren joan ziren hegaluzea arrantzazera, beraz.

Guztia ia 5 mila tona Gipuzkoan

Ekainaren 23an izan ziren lehen hegaluze salmentak, baina oriotarrak beranduago irten zirenez, horiek ez ziren hemengo arrantzaleenak izan. Oriokoek lortutako salmenta kopurua zehatz meatz jakitea zaila da. Ziurtasunez dakigun zifra orokorra da, Gipuzkoan saldu dena. Kasik bost mila tona saldu dira. Gipuzkoan hiru portutan sartzen da hegaluzea: Getarian, Hondarribian eta Pasaian. Getarian 3.3 mila tona saldu dira, eta, Hondarribian, 1.6 mila tona. Pasaian gutxi saldu da. Horrez gain, Euskadin 6.200 tona inguru jaso direla eta Espainian 14.900 tona inguru jaso direla ere badakigu.

OSPAKIZUNA**Salmenta hobeak, prezio altuagoa**

Salmenta gehienak Gipuzkoan izan dira. 2015ean ere kanpaina oso ona izan zen, baina, asko, Gipuzkoatik kanpo saldu zen, batik bat Xixonen eta Laredon. *Batzuetan kamioiean Getariara bidaltzen zuten hegaluzea, baina, ia guztia, han saldu zuten*, azaldu digu Ane Uranga Orioko kofradiako idazkariak. Iaz Gipuzkoako portutan lau mila tona saldu ziren, aurten bost. Gora egin du, hortaz, Gipuzkoako salmentak.

Prezioak ere gora egin du. 3,85 euroko media izan du prezioari dagokionez. Iaz 3,34 eurotan saldu zen, beraz, gorakada bat izan du. *Aurten hobeto ordaindu da*, aitortu du Urangak.

Oraindik hegaluze asko itsasoan

Kanpaina ona izan da. Arrain asko harrapatu dute. Baina, oraindik, hegaluze asko dago itsasoan. Kontua zera da, Espainiako Gobernuak ez dietela uzten gelditzen den hori arrantzatzen. *21 mila tona hega-*

luze harrapatzeko eskumena du Europak. Espainiak kantitate horren %63a harrapatu dezake, hau da, 14 mila tona, argitzen du kofradiako idazkariak.

Kanpaina bukatutzat ematearen arrazoia jaso zezaketen kupoa betetzea dela esan da. Baina horren inguruko argibideak eman ditu Urangak: *Sekula ez dugu aurten bezain beste harrapatu. Beste urtetan baino gehiago harrapatu da, bai hemen, bai Kanariar irletan*. Iazko datuak bikoiztu dituzte han. Izugarri pila arrantzatu dute. Hortaz, orain arte inoiz bizi ez duen egoera bizi izan du Espainiako Gobernuak.

Espainiako Gobernuak erantzule

Beste urtetan 14 mila tonako kuota horretara iristen ez zenez, hainbat tona saltzen zituen, beste zerbaiten kuotaren truke. Aurten, esaterako, Frantziari milioi bat tona inguru saldu dizkio. *Gu horretaz orain enteratu gara. Ez baginen horrenbeste harrapatzera iritsiko ez ginateke ohartu ere egingo*, onartu du. *Baina, kontua da harrapatzea geneukana baino gehiago harrapatu dugula*. Madrildik esan dietenez %10 gehiago harrapatu dute. Baina, noski, %10 gehiago berak aurretik eta inori abixatu gabe ehuneko bat Frantziari saldu diola kontuan hartuta. Horren aurrean, kexu da Orioko kofradiako idazkaria, baina baita Leandro Azkue Eusko Jaurlaritzako arrantza ardura-duna ere.

Babeslekuok hainbat txoko ezagutu dituzte

Zaharren Babeslekuak antolatuta, hainbat txoko ezagutzen ibili ziren herriko jubilatuek irailean. Hilaren 19tik 27ra egin zuten bidaia eta Madrilera pasa zituzten zazpi egun. Irailaren 25ean Cuencara joan ziren eta han bi egun pasa zituzten, 27ra arte. Madrilera nahiz Cuencan hainbat toki bisitatu zituzten: Toledo, Aranjuez, El Escorial, Avila, Segovia, La Granja, Cuervo ibaia...



Gizartea

2017ko udaberrian galdeketa egingo da Orion

Ekainaren 5ean herri galdeketa egin zuten Azpeitian. Galdeketa horri jarraipena emango die datorren udaberrian eskualdeko beste sei herritan: Azkoitian, Getarian, Zarautzen, Zestean, Zumaian eta Orion. Galdeketa baino lehen, berme modura, herritarren sinadurak bildu nahi dituzte. Behin gutxienerako sinadurak lortu ondoren, ofizialki galdeketa deituko dituzte. Gure Esku Dago dinamikak sustatu arren, herri bakoitzean tokiko batzorde bat antolatuko da. Orioko batzordeak duela gutxi egin zuten inkesta KARKARAN batzordearen izena adosteko. Eta, orduan esan bezala, batzordeko kideei herritar gehiago animatzea gustatuko litzaieke. Ateak zabalik dauzkate, beraz. Aian oraindik erabakia hartzeko daukate.

Gizartea

Gipuzkoako jubilatuek pentsio duinak eskatu zituzten plazan

Duintasuna, Gipuzkoako Jubilatuek eta Pentsiodunen elkarteak, Orion elkartu zen urriaren 18an. Salatxo aretoan egin zuten batzarra eta, ondoren, elkarretaratzea egin zuten plazan, pentsio duinen alde. 1.080 euroko gutxienerako pentsioak eskatzen dituzte, Europako Karta Sozialean proposatzen den kopuru bera. Hori da, elkartearen ustetan, hemen eta gaur duintasunez bizi ahal izateko gutxienerako kantitatea. Bestalde, pentsioen kudeaketa integrala Euskadin egitea ere eskatzen dute, babes soziala eta mendekotasuna jasoko dituen erakunde publiko bat sortzea, alegia. Bi eskaera horiek Gasteizko Parlamentuan sartzeko sinadura bilketa egin zuten eta 71.724 sinadura lortu zituzten.

Gizartea

Santa Luziako azokara irteera

Zaharren Babeslekuak abenduaren 13an Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatu du. 9:30ean izango da irteera eta goiza azokan pasa ondoren Kiruri jatetxera joango dira bazkaltzera. Izen-ematea abenduaren 1ean izango da, 16:00etatik 18:00etara. Irteeraren prezioa 30 eurokoa izango da eta izena emateko bazkide txartela eraman behar da. Bigarren autobusa antolatzeko, gutxienez 30 pertsona behar da.

Gizartea

Odol emaleei sariak

Urriaren 23an Gipuzkoako Odol Emaleen Oria Behetako Ordezkaritzak intsignia eta diploma banaketa egin zuen. Oriotik hainbat pertsona joan ziren, eta bederatzi herritarrek jaso zituzten bereizgarriak. Juan San Sebastianek eta Maria Jesus Azkuek emale bikainaren diploma jaso zuten, 100 eta 60 aldiz odola emategatik, hurrenez hurren. Karmele Labakak -40 aldiz- eta Iñaki Arrillagak -50 aldiz- urrezko intsignia jaso zuten, eta beste bost oriotarrek zillarezko jaso zuten, 25 aldiz emategatik.

Ekonomia

Ekonomia gurean

TOKIKOMek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Ekonomia gurean proiektua jarri du martxan. Proiektua Gipuzkoako 9 bailaretan ekonomia ardatz izango duten telebista saioak egitea da. Urola Kostako saioa, azaroaren 8an izango da, Zarautzen, eta eskualdeko hainbat tokiko hedabidek antolatu dugu Tokiko telebistan emitituko da saioa eta hedabideetan kronikak ere egingo dira, baina parte hartzea doakoa da eta bertaratzea animatzen zaituztegu!



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Intxaurrak: Pasa den neguko intxaurrak -aurtengoak lehortzen diren bitartean-, etxera eramanda: 3 kilo, 9€. Pat-i deitu: 634 424 887 edo 94313 21 31

■ Arrautza ekologikoak salgai: 5€ dozena arrautza. Tf: 656772428

■ AUKERA!!! Pisua salgai Aristerrazu Aian -7Ometro-, 2logela, komuna, sailoi handia eta sukalde handia. Garajea eta tras-teroa prezioan barne. 120.000€ Egoera oso onean, ia berria. Interes-abaduz deitu 628271211 telefonora.

Lan eskaintza

■ Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Disponibilitadea behar da.

Tf: 677348103

■ Salatxo tabernan zerbitzari baten bila gabiltza egunero lan egiteko, es-perimentzia edukitzea eta euskalduna izatea eska-tzen da. Interesatuak te-lefono honetara deitu: 608774954

Lan eskaera

■ Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketari lan egin deza-ket eta paperak ditut. Tf: 663117579

■ Gizonezkoa lan bila. Ba-serrian eta ganaduekin esperientzia. Landako la-nak egiteko gai. Tf: 674814755 -Jorge Ponce-

■ Ikasketaz ingeniari me-kanikoa eta 30 urteko es-perimentzia soldadore la-netan. Gaztelera, Ukra-niera, Rusoa eta Polakoa

hitz egiten ditut. Langilea naiz eta lan bila nabil. Edozertan lan egiteko prest nago. Tf: 602628206 -Bohdan-

Elkarbanatzeko

■ Pisukide bila nabil, bi lo-gelako etxea elkarbana-tzeko. 15 metro ditu gelak eta ohe handia. Bi komun eta 50 metroko terraza. Pertsona arduratsua nahi dut. Tf: 652551550.

■ Lanerako bulego han-dia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin. Tf: 656309237 -Imanol-

Alokagai

■ Garajea alokagai Ori-ko kale nagusian. Intere-satuak deitu 691763200 teleonora -Arantxa-

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	5:03 eta 17:18	11:06 eta 23:20	
02	5:33 eta 17:49	11:39 eta 23:53	
03	6:04 eta 18:22	12:14 eta ____	
04	6:38 eta 18:58	0:27 eta 12:51	
05	7:15 eta 19:40	1:04 eta 13:33	
06	7:59 eta 20:32	1:48 eta 14:23	
07	8:57 eta 21:42	2:42 eta 15:26	
08	10:12 eta 23:03	3:50 eta 16:39	
09	11:31 eta ____	5:06 eta 17:51	
10	0:16 eta 12:39	6:16 eta 18:53	
11	1:16 eta 13:37	7:16 eta 19:47	
12	2:07 eta 14:28	8:08 eta 20:36	
13	2:54 eta 15:15	8:57 eta 21:22	
14	3:40 eta 16:02	9:44 eta 22:07	
15	4:24 eta 16:48	10:31 eta 22:53	
16	5:10 eta 17:35	11:18 eta 23:38	
17	5:56 eta 18:23	12:06 eta ____	
18	6:45 eta 19:15	0:26 eta 12:56	
19	7:37 eta 20:11	1:16 eta 13:51	
20	8:35 eta 21:17	2:11 eta 14:52	
21	9:43 eta 22:32	3:13 eta 16:01	
22	10:59 eta 23:49	4:25 eta 17:15	
23	12:13 eta ____	5:41 eta 18:24	
24	0:55 eta 13:14	6:47 eta 19:20	
25	1:47 eta 14:03	7:41 eta 20:05	
26	2:28 eta 14:44	8:24 eta 20:43	
27	3:04 eta 15:19	9:02 eta 21:18	
28	3:37 eta 15:53	9:37 eta 21:51	
29	4:09 eta 16:25	10:12 eta 22:25	
30	4:41 eta 16:58	10:46 eta 22:58	

ZAINZAKO BOTIKAK

AZAROA:

- 1ean, G. Artiñano
- 2tik 4ra, Lasa
- 5 eta 6, Etxeberria
- 7an, Lasa
- 8an, G. Artiñano
- 9an, Izpizua
- 10ean, Etxeberria
- 11n, Iriarte
- 12 eta 13, Larrañaga
- 14an, G. Artiñano
- 15ean, Etxeberria
- 16an, Zulaika
- 17an, Iriarte
- 18an, Larrañaga
- 19 eta 20, Mutiozabal
- 21an, Izpizua
- 22an, Zulaika
- 23an, Iriarte
- 24an, Larrañaga
- 25ean, Mutiozabal
- 26 eta 27, Etxeberria
- 28an, Zulaika
- 29an, Iriarte
- 30ean, Larrañaga

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

IREKIERA URRIAK 28

ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA

BODEGON SARASUA

ERRETEGIZ

Esko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05

ANOBGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza

· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak

· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Orio

Mandalarak 10 urte

■ Urriaren 28an: Mandalaren 10 urte- en errepasoa 18:00etan. *Bizimodu guz- tiak besarkatzea* konferentzia Fidel Del- gadoren eskutik, 19:30ean.

■ Urriaren 29an: Yoga familian Jesica Moralesen eskutik, 10:30ean. *Brain Gym* eta TMR Maialen Mujikarekin. *Dolua, autoezagutzarako bidea* hitzaldia Bide- gineko Izaskun Andonegirekin, 17:00etan. Tarota Isabel Lopezen esku- tik, 19:30ean.

■ Urriaren 30an: Eneagrama eta osasu- na Aimar Martinezen eskutik, 10:30ean. Fibromialgia eta Medikuntza Integra- tzailea Jabier Azpiri eta Karmelo Bizka- rraren eskutik, 12:00etan. Biodantza fa- milian Elen Kortaxarenarekin, 17:00etan. Barreterapia flamenkoa Mo- nica Nuñezen eskutik, 19:00etan.

■ Ekintza guztiak Arraunetxan egingo dira.

Ipuin kontalaria

■ Azaroaren 3an, Pello Añorga ipuin kontalaria, 18:15ean, Kultur Etxean.

Erakusketa

■ Azaroaren 4tik 25era, Argizaiola era- kusketa, Kultur Etxean.

Ekonomia gurean

■ Azaroaren 8an, Zarautzen, Ekonomia Gurean telebista saioaren zuzeneko

grabazioa publikoarekin eskualdeko tokiko hedabideek antolatuta,

Konponbidean al goaz Orion?

■ Azaroaren 3an, *Oriotarron ordua* taile- rra, 19:00etan, Salatxo Aretoan.

Kantaldia

■ Azaroaren 11n, Ibai Marinen kantaldia, 22:30ean, Kultur Etxean.

Antzerkia

■ Azaroaren 18an, *Nomofobikak. Sarean kateatuak* antzezlan, 22:30ean, Kultur Etxean. Amaia Lizarralde, Olatz Beobi- de eta Belen Cruz.

Etxeluze gaztetxea

■ Azaroaren 3an, *KAMPSA 20 años de sueño y escombros* dokumentala 20:00etan, Pasaiako *skate park* autoges- tionatu, errebelde eta kulturalari buruz.

■ Azaroaren 5ean, *skate park*aren alde- ko festa. 18:00etatik 20:00etara skate erakustaldia biniloz girotua; ondoren, pintxo-potea. 22:30ean kontzertuak: Pa- rrazta eta Why not!? Jarraian, musika goizaldera arte.

■ Azaroaren 12an, Xaltxa Badago jaialdi feminista, Orioko Xaltxerek antolatuta. 17:30ean Sexualitate tailerra -Salatxo aretoan-, 19:30ean Bertsxortan emanal- dia eta 23:00etan kontzertuak: La Furia, Vinagre de Moderna, Koxka eta Dr. Myr- na.

■ Azaroaren 19an Dispersioff jaialdia.

14:00etan herri bazkaria gaztetxean, 18:00 Trapalla taldearen kontzertua Kolon Txikin, 18:30ean sardina jana eta 23:00etan kontzertuak gaztetxean: Bi Bala, Gaitza, Fly Shit.

Santa Zezilia

■ Azaroaren 21ean, Musika Eskolako ikasle eta irakasleen kalejira, 17:00etan, herrian zehar. Ondoren, Musika Eskola- ko ikasleen kontzertua, 19:00etan, Kul- tur Etxean.

Moda Astea

■ Azaroaren 4an eta 11n, Woodstock eta Low riders taldeen kontzertuak, 18:30ean hasita, Endaia plazan eta Arrantzale kalean

■ Azaroaren 4an eta 11n, Pintxo Arkupe, Arkupe tabernetan.

■ Azaroaren 4an, Dj Tourra, 22:00etatik 4:00ak arte, Atoz, Errusta eta Kalakarin.

Aia

Podologia

■ Azaroaren 26an, podologoaren kon- sulta, sendagilearen etxean. Aurrez or- dua hartzeko: 943131144.

Auzoetako jaiak

■ Azaroaren 11, Urdaneta auzoan San Martin jaiak.

■ Azaroaren 18an, Altzola auzoan San Roman jaiak.

ARRAINDEGIA

Astelehenetik larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

Kostera

Arraiak

zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4 943 133 580

23. LITERATUR LEHIAKETA

oriotara

- 1 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4 Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- 5 Lanen luzera librea izango da.
- 6 Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- 7 Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 Gaia librea izango da.
- 9 Lanak aurkezteko era:
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefona.
- 10 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- 11 Sariak hauek izango dira:
Ipuinen atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
Bertso edo olerkien atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- 12 Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko euskara teknikariak, Aiako kultur teknikariak eta KARKARA aldizkariko kide batek osatuko dute.
Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- 13 Lanak aurkezteko tokia eta epea.
Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.
2016ko azaroaren 16a izango da horretarako azken eguna.
- 14 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea.
Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

